

Juan Zulaika Lizaso

*Zarautz,
Gipuzkoa (1929)*

Aurkibidea

Biografia



Juan Zulaika 1929an jaio zen Astazuri baserrian. Azken Portu taberna zegoen inguruan zegoen, baina bota egin zuten 1975 inguruan. Baratzea eta ganadua zituzten. Txirrindulari-lasterketetan ere ibilia da gaztetan.

Zintak

ZAR-045

- **Proiektua:** Zarautz Hizketan - Zarauzko euskara eta ahozko ondarea

- **Elkarrizketatzailea(k):** Muniozguren, Fernando - Zabaleta Zuloaga, Miren
- **Data:** 2006-02-14
- **Iraupena:** 95 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Agirrebeña, Aintzane
- **Transkribatzailea(k):** Zabaleta Zuloaga, Miren

Pasarteak

1. Zuka, hika, berorika; norekin bakoitza

- **Erref:** ZAR-045/002
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:01:30. **Bukatu:** 00:03:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Berorika
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

<p>Pertsona nagusiei zuka eta gurasoei berorika hitz egiten zitzaien bera gaztea zela. Anai-arreben artean nahastea sortzen zen. Senar-emazteen artean hika egitea arraroa egiten zaio.</p>

Transkripzioa

<p>- Zuen itxian...</p>

<p>- Ez, pertsona helduai "zu", eta gurasuai [berriz] "beori" zan, gure gazte denboran.</p>

<p>- Ta anai-arreben artean?</p>

<p>- "Zu"… arrebai bai; baiña anaian tartian, nere aurrekuai “zu” oso gutxitan, "hi". Zaharraguai ez, beste anaia zaharraguai "zu".</p>

<p>- Errespetu kontua...</p>

<p>- Nahastuta ibiltzen giñan, nahastuta. Nahastuta ibiltzen giñan orduan.</p>

<p>- Bai, beste batzuk ere... kasuak, holako kasuak topatu dizkiau, e. Anai-arreben artian batzui "zu" beste batzui "hi"...
- Bai, oseake, hor...
- ... nahasketa...
- … edadian, ni gazteena senidetan nitzan, ta ni baiño 10 bat urte [zaharraguak´e bai ta haiei itia] batzutan... zea iruitzen zatan, baiña bestela bai. En kanbio, koñatai ta, nahiz... neu baiño gaztio, haiei beti "zu". Ya beste zea bat ibiltzen gendun haiekin.
- Eta [hemen], bestia, zuenian hainbeste ez dakit, baiña Gaztakan-ta, errespetuz, 3. pertsona erabili, amai-eta: "Ez al du ikusten?" ta "Ze moduz dago?" ta...
-Bai, bai, [...] beori ta...
- "Beori" hitza igual ez hainbeste entzun ez, baiña amai... nere lehengusuak bere amai-ta: "zer moduz dago, ama?" eta "pasa al zaio?" ta...
- Pertsona helduai "beori" batzuei ez zitzaien gustatzen. [Eta esan ohi zuen]: “Beori esan dezu?, behorak mendiin izaten dia /izateia/” esan ohi zuten batzuk. Ez zuten [...]... haundiegiya bezela.
- Baiña zuei behintzat hika errespeto falta dan zea hoi gelditu zaizue.
- Bai, bai. Nik hemen Aian ikusi det, neska-mutillak alkarrekin nobiyo ta ezkonduak´e bai hika! Eta "Hi! [...]!" ta eundoko kolpia iten ziun guri, eundoko kolpia iten ziun. Eta [beak, ba, ohituta horrela].</p>

2. Biografia; baserriko bizimodua

- **Erref:** ZAR-045/004
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:06:10. **Bukatu:** 00:07:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

<p>Juan Zulaika 1929an jaio zen Astazuri baserrian. Azken Portu taberna zegoen inguruan zegoen, baina bota egin zuten 75 inguruan. Baratzea eta ganadua bazuten. Ama plazara joaten zen saltzera.</p>

Transkripzioa

<p>- Juan Zulaika Lizaso
- Noiz jaiua?
- 18 Noviembre 29.
- 29yan? Zarautzen?
- Zarautzen.
- Zein kaletan edo?
- Caserío Astazubi.
- Astazubia. Nun dago hori?
- Ez dao /eztao/, bota zuten. Azken Portu taberna ezagutu al zendun?
- Bai.
- Handikan, aurreneko itxia. Futboleko kanpua zaneke hara jutén hasita.
- Ta ze urtetan bota zuten?
- Sesenta y… [...] ?
- (Laguntzailea): Nik ezagutu nun eta hirurogeta hamabosta o holakon

bat izan [leike].
- [Izan leike, izan leike].
- Franco hil zan urtian, ordun? Franco hil zan urtian?
- [...]
- Bai, 75ian hil zan..
- Bai? Eske azken xamarrian [bota zan, gaiñea´re]; urbanizaziyuan, hor zortzirehun etxebizitza egon zian proiektuan eta azken xamarrian bota zan [...]. Bai, bai, honek esaten duna /esateuna/ [bota zan], bai.
- Ze eratako baserriya zan? Baratza [ibiltzen] ziana? ganaua ere bai edo...?
- Bai, baratza haundiya, paretaz itxiya, hormakin itxitakua, lau bat milla metroko lurra, igalez betia eta baratza lana iten zan. Nere amak plaza eguneroko zea zun, puesto fijua zeukan. Barazkiya, eta gero, ba, lau bat behi egoten zian. Lau bat behi, bere txekor batzuk, zaldiya eta astua, gero iriyak ere egon zian beste 10 bat urtian edo.</p></div>
<div data-bbox="290 273 594 291" data-label="Section-Header">
<h3>3. Auzoko mojekin harremana</h3>
</div>
<div data-bbox="328 303 764 351" data-label="List-Group">

• **Erref:** ZAR-045/005
• **Iraupena:** 0:02:02. **Hasi:** 00:07:38. **Bukatu:** 00:09:40
• **Multimedia:** bideoa online ikusgai

</div>
<div data-bbox="290 361 364 377" data-label="Section-Header">
<h4>Gaia(k):</h4>
</div>
<div data-bbox="328 389 878 451" data-label="List-Group">

• Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak
• Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
• Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

</div>
<div data-bbox="290 463 392 479" data-label="Section-Header">
<h4>Laburpena:</h4>
</div>
<div data-bbox="290 479 896 543" data-label="Text">
<p>Mojen lurretara joaten ziren lanera, idi parearekin. Arratsaldean errazioa ematen zieten langileari eta ganaduei. Bi moja egoten ziren kanpokoekin harremanetarako, eta besteak klausuran. Pilotan aritzen ziren elizako horman. Pilotak alde egin eta mojetara joaten ziren bila.</p>
</div>
<div data-bbox="302 562 423 578" data-label="Section-Header">
<h4>Transkripzioa</h4>
</div>
<div data-bbox="302 578 886 963" data-label="Text">
<p><p>- Hara jutun giñan, goldian, itulan, hango lanak itea jutun giñan. Konpetentziya hori gendun. Hara jun ta [jardun...].
- Ta lanan truke zerbait jasoko zenuten baita?
- Lanan truke, beak bestetan bezelaxe, bere sariya diruz ordaintzen zuten.
- Bai, e?
- Bai, "Bestetan bezelaxe?", ta "Bai, bai, [...] hola eitten du /eitteu/" ta "Bale" ta [...].
- Ganau paria...
- Iri paria laun batekin.
- A! Iri paria?
- Iri paria laun batekin jutun zan hara. Eta arratsalde erdiyan arraziyua launantzako eta artaburu bana iriyantzako, izaten zuten haiekere sariya.
- Eta zer raziyo, ze ematen zuten raziyuun?
- Raziyuun, ba, [...] bokadilo koxkor bat eta litro laurden bat ardo. Eta gero udare pare bat edo hola, ganbaran eondako xehe hoitakuak.
- Orduan, portatzen zian?
- Oso ondo. Oso ondo, bai.
- Gaztiak izango zian hor mojak?
- Danetik, danetik. Ordun zeudenak, oain ez al dia egongo baiña… bat edo beste bai. Errezilenekua, osaba Juaniton lehengusua, [...] hor zeon]. Ta gu hara jutun giñan leno, mojan horman kontra pelotan gebiltzala, pelota paetaz gaiñetik jutun zanian baratza… ni hara jun eta: “Zea, pelota erori zaigu...” eta: “Biyar etorri emango dizuet eta”. Zeatikan hor daude kanpoko lanak iteko bi edo hiru eoten zian jendiakin komunikatzeko eta erosketak iteko. Ta beste batzuk klausuran barruan. Aparte bizitzen zian. Kanpoko hoiei esaten giñun ta haiek barrukoi abixua pasatzen zien eta hurrengo egunian-edo pelota ekartzen zuen eta hara hamaika aldiz juna.
- Orduan, pelotam jarduten zenduten hor, e?
- Hor paeta pasa... Horma haundiya zun, oso altua.</p></p>
</div>

3 metro eta erdi inguru izango zan horren altura. Baiña mutil-koxkorak pelotan ai giñala, baloia o... “Pelota erori zaigu” eta “Zein paretan?”, "Makalan onduan, han zean…", "Bale!". Ta hala ekartzen ziguen. Askotan juten giñan. Oain eliza garbitzea juten gea, hillian behin edo horrela. Eta esaten diet nik: "Lehen honea kanpanila jotzea etortzen nitzan, pelotan bila ta oain eliza garbitzea etortzen naiz”.</p>

4. Auzokoen arteko harremana; auzolana

- **Erref:** ZAR-045/007
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 00:10:22. **Bukatu:** 00:11:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Auzokoen arteko harremana. Gurdiak elkarri uzten zizkioten eta txahala jaiotzeko zegoenean ere auzora laguntzera joaten ziren. Gari-jotzea ere auzolanean egiten zuten.</p>

Transkripzioa

<p>- Etxe bakoitzian bazan gurdi bat. Gurian bazan gurdi bat belarra ibiltzeko; beste bat zimaurrea ibiltzeko eta beste bat hondarra ibiltzeko. Eta eun batian behar bazian bi ganau parekin belar ondua ekarri menditikan… gurdi bat falta. Auzoa [edozeiñeta] jun "Hi, zea, gaur gurdiya behar niki ba horrela" eta "Bai, bai", edo “Gaur ez zakat /etzakat/ ba; bestiana jun berko dek” eta. 4 edo 5 auzo hor ingurun giñanak oso ona. Baten bat behi bat ume iten ai zanian edo: “Hi, holako tokitan behiya...” eta "Lau-bost laun ekarri itzak eta jun hai, zea, behiya ume iten da ta". Ta [han etortzen] zan. Auzo artian.
- Benetako auzolana, beraz.
- Oso. Gariya ebateko ere, auzolana. Eta gero gariya jotzia izan tzan urte batzutan. Gerraosteko urte haiyetan eta. Eta mojetako paetan kontra hor bazan ean toki bat ganauantzako, [lehen esan deana], komunala, auzoko zortzi etxentzako o horrela. Haren onduan makina jarri, matxaka, eta auzoko danak alkarri launduz, eun batian jotzen zian gari danak. Auzo artian jotzen zan.
- Orduan´e izango zan ba alkarri adar-jotziak eta holako kontuak, ez?
- Ahal tzan guztiya. Bai, honbre, eso...
- Ardo pixkat edan ta...
- ... a la orden del dia. Eta hola ardo pixkat edanda zeonak are eta gehiyo…</p>

5. Auzolana; auzo-alkateen aukeraketa

- **Erref:** ZAR-045/008
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:13:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Bideak konpondu behar zirenean auzo-alkateak errazioak eskatzen zituen

udaletxean. Auzo bakoitzak alkate bat zuen. Auzo-alkatea udaletxeko onepenarekin aukeratzen zen.

Transkripzioa

<p>- ... klase danetikan. Eta batik bat gari-jotziak zianian eta bestia izaten zan bide-konpontzia. Danda! Baserritako biria in ber eta udaletxea eskatzen zan, zeak, "alcalde de barrio" k iten zun eskabide bat: “erraziyua”. Holako bide konpondu behar da eta erraziyuak [behar dituu /behaituu/] hartarako. Eta ematen zuen litro… ez dakit litro laurdena o litro erdiya. Hainbeste ardo eta ogi zea bat, ogi [zerrenda] bat, barra erdiya-o izaten zan bakoitzantzako. Eta askotan, ba, "Bai, 15 bat lagun-edo izango gaituk. Eta ekarri zak gehixio". Eta garrafoika ardua eta ogiya izaten zan erraziyoako. Eta hua jan ta ean eitten ai zan bitartian, [...]

alkarri nundikan adarra jo, euskeraz esaten dana. Hori...
- Eta ogi hutsa eta ardua, besteik ez?
- Ogiya eta ardua. Hoiyek zian erraziyua. Udaletxiak ematen zuna.
- Lehen esan dezu auzoko alkatea.
- Barrioko alkate, bai.
- Eta hori nola izaten zan? Nork aukeratzen zun o...?
- Hori... Barriyuak Zautzen dituk: San Pelayua, Haitzgaña, Urteta, ta Elkano. Ta bestia, Miakua, ez takit hor [sartzen] zan. Eta barriyo bakoitzian eoten zan “alcalde ped´neo”, barriyoko alkate bat. [Hori izaten zun] barriyoko gorabeherak gai hoietako, eskabide hoiyek iteko-ta eoten zan.
- Eta hori nork aukeratzen zun? Nola aukeratzen zan?
- Barriyuan bertan; baiña herriko baimenakin o herriko launtzakin, o herriyan zauden alkate edo komisiyokuak beste hoiyek pixkat zeatzen zituzten zein izan.
- Botaziorik gabe orduan?
- Botaziyo zeaikan ez, auzotan-ta ez zan izaten. Osea ke, bertako bakarren batzuk eta udaletxekuakin iten zuen zea hori. Udaletxetik izaten zuen batik bat, horren onspena behar izaten zuen. Osaba Pelaio urte askotan egon zan [...].
- Laguntzailea: Bere anaia.
- A...</p>

6. Ermandadeen inguruko gorabeherak

- **Erref:** ZAR-045/009
- **Iraupena:** 0:02:11. **Hasi:** 00:13:24. **Bukatu:** 00:15:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Baziren ermandadeak auzoan, baina beraiek ez zuten parte hartzen. Ermandadeetako tirabirak. San Pelaioko gizon batekin ermandadean izandako gorabeherak.

Transkripzioa

<p>- Gu ez giñan ermandadekuak, baiña ermandadia bazan. Terrama batzuk esaten ziyoen, bestiak ermandadia. Bai, biyeta. Biyeta izaten zan. Zautzen izango zian, ez takit: bi edo hiru.
- Baiño zuek ez?
- Gurian ez zuen nahi izaten, zeatikan izan zian lehenok kasun batzuk, abusatzen zuelako batzuk eta bestiak ez eta, [dan suertia dala, eta ...] eramaten zan. Eta San Pelaiokuak zuen ganauan adarrian burni gorituakin eindako sellua: “Angel de la Guarda”. Anjel, kofradi hori zan: Aingeru guardakua. Ta hor izaten

zian batzutan, “Nei behiyak ume-hilla bota dit”;, o sea, “expulsi&ocute;n del feto” esaten dana /esateana/. "Zea hori esan dit" eta... batzuk bai, "ba al dek ba?", "ez al dek?", "ez [...] ta... Eta katalaguan jarrita zeon hainbeste bakoitzeko bere zea eta batzuk han izugarri sartzen ziala; beste batzuk ez zuela iten, beste batzuk beren kulpaz izaten zituela, eta... izaten zan. Geo gertatu zan, San Pelaioko hortan, gizon bat zeon beti polemikua –zein ez det /eztet/ esango, hil zan eta zea…. Eta juntako askoek esan: "Hori? Hobe giñikik bialdu bagendu! Alde eingo balu…," ta "Joe, bialdutzia... bialdutzia... gizonai esatia ez zioke ba hori..." ta "ez zion ba hori..." ta... Hala ein omen zuen juntaiza, urtekua ein zuenian, batek: “Hi, ni urtero hemen jaleua izaten diau bai, eta ni baja ematea nitxiak. Neria borratu zak”. Bestiak´e: “Nik´e hoixe ingo diat. Honek in duna ingo diat /ingoia”. Beste batek´e: “Zuek baldin bazuazte, ni hemen ez nitxiok ba…” ta "ez nitxiok ba..." ta bakarra geatu terraman! Bota nahi zuen hura. Hua geatu! Ta “Beno, zuek danak bai, ni ere borratu ingo nauk ordun” ta "Bueno, bale". Eta borratu. Eta orduan batzuk, orduan hasi prepatzen, eta: "zeatikan, hainbeste urtian alkarrekin eon gaituk eta" zea ta, zea ta... "Beno, berriya ingo diau ordun, berriya. Estatutu batzuk aldatuko dixkiyau eta berriya ingo diyau". Ta batek izena eman –lehenagotikan hori planeatuta eongo zian, nunbait–; batek izena eman, bestiak´e bai, eta bestiak´e bai ta... "A! baiña gauza bat: hemengo folloiak danak hik in dittuk bai –beai esaten zioen–; danak hik in dittuk. Hi ez haugu onartuko”. "Joe, ni laga ber al nazue hola?", eta "Bale". Baiña "sin voz ni voto” tipo hori, "sin voz ni voto". Hori gertatutakua. </p>

7. Hondarrari baserrietan ematen zioten erabilera

- **Erref:** ZAR-045/010
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:15:35. **Bukatu:** 00:17:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzea eta soroa

Laburpena:

<p>Hondartzako harea ekartzen zuten ganaduari azpiak egiteko, simaur hobia egiten zelako. Patata ereiterakoan ere hondarra botatzen zen gainean belarrik ez irteteko. Hondarra hartzeko baimena atera behar izaten zuten eta bono bat ordaindu.</p>

Transkripzioa

<p>- Eta gero esaten dezu gurdi bat hondarreako. Ze lur klase zeon ba hor?
- Hondarra hondartzatik eramaten zan. Zertarako? Ganauai azpiyak iteko. Iñaurkiña botatzen zanian ganauan azpiyan, esaten dana, “la argoma”;, garua edo ota txikiya botatzen zanian, ohitura zan palaka bat hondarra bota eta simaur hobia iten emen tzan. Zea iten emen zan. Eta beste bat izaten zan, patata ereiten zanian, patata zuluan eiten zan garai hartan: atxurrakin zulua ein eta patata jarri. Eta botatzen zien zuzenian simaurra, eta gaiñian palaka bat hondarra. Gaiñian belarrik gabe hazia [izan zezan]. Ohittura hoiyek zian. Eta hondartzan iten zan, oain frailletako atze hortan Madozeneko

estrata zan. Eta hor [aldapa] xuabe-xuabe, hortikan eozeiñek ateatzun hondarra. Ta geo in zuen, ba, hau zala, hori zala... itxi eta zea jarri, parroko hauzkaldetikan, oain Getai kamiyua hasten zeaneko hartan, Narroseko hartan eta oso pika zan han ateatzeko. Behar dezu oso iri pare ona edo bestela atoian ibili ber; bi alkarri lotuta. Hola ibiltzen giñan. [...] Udaran, astian egun bat, ostiral goiza, hondarra hartzeko baimena; bestetan itxita egoten zan, danak itxita. Baiña danak hondarra ber gendun; ohitura hori gendun eta hondarrik gabe, ezin bizi. Ezin bizi. Eta geo danak itxi zian, ta hondarrik iñork ez du hartzen eta lehen bezelaxe bizi izan gea. Ikusi zan hura alperrikan zeola.
- Eta arazoikan ez hondarra hartzeko ayuntamiento aldetikan eta ezer ez?
- Ez; baiña zeatikan bai, marinatikan bai. Zumaira jun eta "Comandancia de Marina" tikan baimena atea behar izaten zan, bono bat, hondarretako, hondarra ateatzeko baimen bat, zedula bat. Justifikante bat izaten zan. Metroko erriala paatzen zan kanona.
- Asko igual garai hartako, ez?
- Bueno, bai, bai... nola esaten da /esatea/, 25 centímos; sí, sí, pero…</p>

8. Eskolara baserriko lanik ez zenean

- **Erref:** ZAR-045/011
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:17:35. **Bukatu:** 00:19:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Maisu-maistrak
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>Gerra-aurretik hasi zen eskolan. Gerra garaian irakasleak joan egin ziren eta irakasle madrildarrak etorri ziren gero. Baserrian lanik ez zegoenean bakarrik joaten zen.12 urterekin gau-eskolan hasi zen.</p>

Transkripzioa

- Gerra aurretik hasi, en el año 36, eta gero gerra etorri zan, maixuak alde ein zuen, eta hillabete batzutan, ba, dalako zea hua pasa eta gero horratikan e, maixuik nola ez zeon, neska gazte batzuk, madrileñuak, udara pasatzera etorri zianak, zean zeudenak, oain Hotel Zarauz dan hortan [zeuden batzuk], 2 ahizpa, berrogeita lau-bost mutil koskorrentzako. Batzutan etortzen nitzan, itxian, basarriyan zeaik ez bazan eta hola. Baiña gutxi, gutxi. Tonto xamarra izan´e bai. Eta geo hamar urterako geatu. Aita hil. Bi anaia zaharrak soldadu. Hamasei urteko mutil koskorra, [...] eta ni etxian amakin. Geora, hamaika urte iteko, komuniyo haundiya esaten zana, "comuni n solemne". Ordurako etxian neon, geatuta. Hau zala, hori zala eta maixuakin zea izan zala eta [...] eta anaiak: "Ondo zio, hi, [pixkat badakik]". Hark´e launa ber, bakarrikabn zeon bestela eta, [etxian geatuta]. Ta geo in nuna zan, hamalau urteako hasi nitzan gau-eskola etortzen. Ez, hamabi urtekin hasi nitzan gau-eskola etortzen. Frailletan urte batzutan, ta gauez ematen zan eskola ordun, basarrikontzako eta bertako batzuntzat´e bai Illuntzian neguan izaten zan lau bat hillabetian-edo gau-eskola, eta horrea etortzen nitzan. Urte batzutan frai Bitorrekin ibili nitzan; beste batzutan zeakin´e bai: Sorasu, maixu kojua zan, profesionala, baiña hanketatik-eta gaizki geratu zan. Ta bestia [...] Xan Pierren alaba batekin,

[...]. Hogei urtea arte neguan, eta hiru bat hillabetian edo eunian ordubete, ordu ta erdi edo hola. Eta eskerrak horrei ba

- Horra jun aurretikan eskribitzen eta irakurtzen jakingo zendun.
- Bai, ordurako lau zeak... lau operaziyuak, nola esaten da /esatea/? "las 4 reglas" edo. Ba horreaiño aillatzen nitzan, aillatzen nitzan.
- Eta hori ikasi zendun hain gutxitan junda?
- Bai, askotan ez nitzan jun; askotan ez nitzan jun.
- Orduan, tontua ez; azkarra behar zendun.
- Esatia ez da errexa. Señorita batek oso estimatua nindun, oso estimatua nindun, bai. Hori esan bihar da.

9. Umetako jolasak eta gaiztakeriak

- **Erref:** ZAR-045/012
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:19:58. **Bukatu:** 00:21:16
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Umetako jolasak: pilota eta sokasaltoak. Txori-habiak apurtzen ere ibiltzen ziren. Gaztetako beste jolas arriskutsu bat: karburua pote baten uretan jarri, su eman eta potea zeinek gorago bota.</p>

Transkripzioa

- Hala mouzko paeta bat bilatuz gero, pelota. Baloia gutxi. Bazan. Bueno, [...] gure etxetikan nahiko hurbil zan, baiña hori zailla. Gero [...] sokasaltua ere bai, pixkat berotze aldera ta. Gero, zuhaitzian gora iyo ta txolarrian kabiya lapurtzia. Hori´re ya "estaba a la orden del día". Ta beste bat nik noixian behin [...] ikusten nuna zan... peligrosua, eta ez zuen nahi izaten etxeetan´e. Orduan karburua zan, basarri batzuetan argirik ez zeolako, kinkiantzako, karburua. Eta iten zan: hondarrakin zerko bat ein, barruan hueko bat jarri, hara ura bota, ur hortan karburo [...] intxaurran neurriko karburo pusketa sartu, potia jarri gañian, ta [alditikan] aldamenetik halako zulo txiki bat pote horrei. Su eman harei, ta potia zeinek gorago bota.

- Ta karburua izaten al zan bat´e?

- Karburua, bai. Karburua hemen Errekondonian eta geo Pionian saltzen zan. Zer dan badakizu karburua?

- Bai, bai.

- Saltzen zan. Basarri askotan pistoi bateko su horrekin ibiltzen zalako. Hura asko iriki edo gutxi iriki, tantua [eroi] edo asko iriki sua iteko. Hori ibiltzen zan. Basarritan toki askotan [...].

10. Gaztetako bizikletak zenbat ordaindu zituen

- **Erref:** ZAR-045/014
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:22:44. **Bukatu:** 00:24:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Bizikletak eta motorrak

Laburpena:

Lehenbiziko bizikleta 16 urterekin erosi zuen. Bigarren eskukoa zen eta 60 duro inguru ordaindu zuen. 19 urterekin txirrindulari batena izandako karreretakoa erosi zuen.

Transkripzioa

- Bizikletak eta bai garai hartan... Zenbat urtekin lehenengoa?
- Ba, hamaseikin o horrela lehenengo bizikleta.
- Ze eratako bizikleta?
- Ze eratakua? Frantsesa, ona, [...]. Apellanes pintorian semiana hartu nun nik hura, bigarren eskutikan eo. Ta geo hemeretzi urtekin ya karreretakua, bigarrenengo eskukua. Eta geo harekin ibiltzen nitzan [...] iten.
- Zenbat paatu zendun lehenbizikua?
- Hirurogei duro uste det zala.
- Hirurogei?
- Hirurogei duro, “trescientas pesetas” esaten dana. Ta geo handikan esan deana, hemeretzi urtekin “setecientas cincuenta” karreratakua, tubularra, ya...
- Manillarra karreratakua ta dena.
- Bai, ta kurpillak eta kanbiyuak eta hor zeona, “lo que se estilaba”, korredoria izandutako batena hartu nun.
- Zeiñena? Ze korredore?
- Xuaina, Herculeno Aldaz. Ta hark beste bat hartu zun hobia eta hori errifatu in zun, ta erten zion Kepa Zinkunegiri, erten, ta hark “zertako [...] bizikleta hau?”, eta, “hi, nik paatuko nitek, baiña...”, eta zortzirehun peza behar zula ta, “holakuak esan ziak emango ditela”, “emayok, ba. Nik zazpirehun t’erdi emango yat, baiño bizikleta hartu baiño lehen, e?”, ta, “hartu zak, ba!”. Hala eman zian, halaxe eman zian. Ta geo harekin karreretan ibilli nitzan.

11. Gutxi abesten zuten, giroa ez zelako egokia

- **Erref:** ZAR-045/015
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:12
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak » Kantei buruzko azalpenak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak
- Politika » Politika eta Franco

Laburpena:

<p>Gaztetan gutxi abesten zuten, gerraostean debekatuta zegoen eta. Gau-eskoletan aita Ibarbiarekin irakurri zuen lehenbizi euskaraz. Etxean bertsoak abesten zituzten, amak paperetik ikasiak.</p>

12. Auzoetako jaiak

- **Erref:** ZAR-045/016
- **Iraupena:** 0:03:03. **Hasi:** 00:26:12. **Bukatu:** 00:29:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- Aisia » Jai-giroa » Beste toki batzuetara jaietara

Laburpena:

Auzoetako jaietara joaten ziren gaztetan: Askizu, Urdaneta... Meagan igandero izaten zen erromeria; Argote izaten zen soinu-jotzen. Oinez joaten ziren; gerora bizikletan ibiltzen ziren eta urrunago ere joaten zitiren. Ze ospakizun izaten ziren.

13. Helduan dantza egiteko debekuak; kongregazioak

- **Erref:** ZAR-045/017
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:29:15. **Bukatu:** 00:30:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Kongregazioak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Erromeriak nolakoak izaten ziren. Helduan eta soltean dantza egiten zuten. Aian kuadrilla bat kartzelara eraman zuten helduan dantza egiteagatik. Mariaren alabak kongregazioko neskek "zeladorak" izaten zituzten zaintzeko.</p>

14. Igandeko eginkizun eta entretenimenduak

- **Erref:** ZAR-045/018
- **Iraupena:** 0:00:47. **Hasi:** 00:30:35. **Bukatu:** 00:31:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Igandetan goizean mezara, ondoren ganadu-lanak. Bazkalostean siesta eta kalera lagunekin. Erromeria amaitutakoan etxera. Kuadrillan gutxi edaten zuten eta tabernetan ere gutxi ibiltzen ziren.</p>

15. Lasterketetan parte hartzeko 'Frente de Juventudes'en baimena behar

- **Erref:** ZAR-045/019
- **Iraupena:** 0:02:12. **Hasi:** 00:31:22. **Bukatu:** 00:33:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>18-19 urterekin hasi zen kirola egiten. 11 lasterketa egin zituen

bizikletarekin. Parte hartzeko zenbat ordiandu behar izaten zen. Horretaz aparte Frente de Juventudeseko baimen bat behar izaten zen.</p>

Transkripzioa

- Ta deportian ta noiz hasi ziñan pixka bat?
- Deportian hemezortzi urtetik hemeretzi, hemeretzi in nitun, karrerak in nitun.
- Bai, bizikleta karreraduna erosita, ez? Ze karrera edo nundik noa edo?
- Ba, hamaika uste det in nitula, hamaika karrera uste det in nitula. Zarautzen bat, bi, hiru, Axkoitiyan, Donostiyan beste hiru, Oriyon beste bi, hor zan gutxi gorabehera, hor zan, hor zan.
- (Semea) Ordun federatzeko edo parte hartzeko ze eskatzen zuen?
- Hasiera-hasieran kuota bat, ez dakit bi pezta o hiru paatzia dorsalan gasturako o horrela. Ta geo, ya Zarautzen korritu nuneako ta, bai, federaziyan zea behar izaten zan. Baiña iten zuen a punta pala, e! Meikuan zertifikauik eta [...], beno, “tienes que pagar veinticinco pesetas”, hemen Zarautzen korritu nunian. “Tienes que pagar veinticinco pesetas” [...] sekretayuak. Hua eaman nun [...], “luego me mandas la fotografía y los nombres y tal, y ya, ya te cursaremos”, ta uaindik ez da etorri bueltan hua.
- (S) Baiña nik zuri aituta Zirkulokuan o baimena o zeoze behar zala han...
- A, a, bai, bai, esaten dek este, prueba hartzeko izaten zan “Frente Juventudes”ko baimen bat behar izaten zan, hori ahaztu in zait, “Frente Juventudes”ko baimena. Ta hau esaten zuen “El corredor tal y cual, el atleta tal y cual ha salido por mediación de Frente de Juventudes”, “claro, tenías que pasar por el aro”. Estranjerira juteko pasaportia atako baldin bazan, “sección femenina”n eondakua behar zun neskak’e izan. Hortikan pasatakuan ordun ematen ziyoen. Baiño iten omen ziyoen kanastilla bat eiñ arazi, [...] izaten zan harako. Horrea etorri zan batian osaba Roman, siestan geundela, jai arratsalde batian. “Ze, nolaz etorri zea?”, ta, “zea, gure nausi horren alaba Zarautzen dao zea hor iten eta haren billa etorri naiz, ya bukatu dula ta”. “Nola?”, ta, “eske, estranjeira juteko pasaportia ateatzea jun da, soltera daolako ta abar, eta esan diyoe que tiene que pasar por un centro [...]. Hortik pasa ta geo kanastilla bat [...], beak jakingo du harekin ze in”, ta horrela gauzak. Norma batzuk zeuzkaten.

16. Gaztetan diru gutxi

- **Erref:** ZAR-045/020
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:34. **Bukatu:** 00:34:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

15 urterekin hasi zen lanean fabrian. Dirua justuan izaten zuten gaztetan.

17. Udaletxea erre zutenekoa

- **Erref:** ZAR-045/021
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:34:30. **Bukatu:** 00:36:52

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Jarrera politikoak » Erreketeak

Laburpena:

Gerra garaiko oroimen txarra du. Erreketeak sartu zireneko arratsaldea. Udaletxea erre egin zuten, gizon bat barruan zela pentsaturik, baina teilatutik ihes egin zuen. Beste etxe bat erretzen saiatu ziren, baina herritar batek konbentzitu zituen.

18. Txirrindularitzarako zaletasuna; lasterketak

- **Erref:** ZAR-045/024
- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 00:38:24. **Bukatu:** 00:41:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Bizikletan nahiko ondo ibiltzen zen; etxean utzi izan baliote jarraituko zukeen. 11 lasterketatatik lau irabazi zituen. Baserrian lan egin ondoren joaten zen lasterketara. Lasterketen baldintzak eta sariak. Lasterketa amerikarra (zirkuitoria).

Transkripzioa

- Bestela, afiziyuak eta, ordun hasi hartzen bizikletana ta, ordun, ez? Hemeretzi urtekin...
- Bai, bai. Batea juten ta bestea juten... Geo gertatzen da, gertatu zitzaiten nei, bost, sei ibiltzen giñan kuadrillan. Ta, "noa-noa jun bihar diyau!", ta juten hasi ta, veinte leguas motx, atzian ikusten nitun, atzian, ta. Nola esatea beti, beti, ta erraxtu, erraxtu. Ta horrek sartu iten dizu zea hori, "banauk hoyek aiña, banauk hoyek aiña".
- Harra!
- Bai, bai. Ta etxian nahi izan balie, segiko nun. Anayak ordia, bai, "joe, han haon denboan ez dek iten ezer itxian ta, basarriyan in behar dekela lana". Hamaika karrera korritu ta lau irabazi nitun.
- Kontxo!
- Eta... hor ibiltzen nitzan, hor ibiltzen nitzan. Figura ez nitzan izango, baiño hor ibiltzen nitzan.
- Ze karrera irabazi zendun, ba?
- Zarautzen bi, Axkoitiyan bat eta... bi esan det, hiru Zarautzen, hiru Zarautzen, bai. San Pelayotakua, eliminatoya amerikana ta zeana, San Antoniyona, hiru hoyek. Ta bestia Axkoitikua, ta Axkoitikua iteko in nun goizian bostetan jaiki, "dieciocho de Julio", astelehena, bezpera jaya, hamabitan oheratu. Goizian bostetan jaiki, bi ordu belarra ebakitzen jardun, morroya ta biyok, morroi bat bagenun ordun. Etxea etorri, gosaldü, Axkoitira jun bizikletan, karrera irabazi, ta geo arratsaldeko hirutan etxea [...] sobrautako babarrunak jatea.
- Zenbat kilometroko zea izaten zan, karrera?
- Ordun... hemen Zarautzen genduna berrogeiko hori zan, berrogei kilometro inguru hori, ba, karrera koskorra izaten zan.
- Ta premiyua ta?

- Premiyua? Bost durokon bat, kopa ta beste... Koñak botilla bat eta korbata ta [...], ta.

- Koñaka? Deportista...

- Koñak botilla.

- Deportistantzat?

- Klaro, eske iten zuen besamanosa zea ta, tabernantzat bialtzen zuen hori organizatzeko ta. Ta klaro, ematen zuena, ematen zuena zabaltzen zan. Klaro.

- Soberano izango zan ordun, Soberano?

- Ez dakit, ya ez dakat hainbesteko...

- “Cosa de hombres”.

- Bai, bai. Geo amerikana irabazi nunian’e hamabost duro, udaletxiak organizatzen zun, hamabost duro. Ta aurrenengo urtian in nitun premiyo, sari ta zea hoyek, bestia Ataunen hirugarren in nunakin ta abar, ba, bizikleta paatzeko lain ni nun aurrenengo urte hartan, bizikleta paatzeko laiña.

- Kontxo!

- Amerikana zeba deitzen zitzayon? Amerikana esan dezu, karrera?

- Bai, amerikanua izaten da buelta bakoitzian bat edo bi eliminatuaz.

- A, a, a! Hori da, hola da... A, bale, bale...

- Izen hori ibiltzen zayo... Bueltaka hasten zea zirkuituan ta azkeneko biyak kalea, azkenengo hiru bueltetan eo geatzen dian bost o sei hoyek espriña arte. Hori da, galdera ondo...

- Bai, bai, bai, bai...

- Sistema amerikano horrei deitzen zayo.

- Eta ze, zirkuitua zein izaten zan?

- Zarautzen zan Parrokiko hortatikan San Pelayoko surtidoria daoneko hortaiño. Bastante luzia da, hiru bat kilometron bueltan, [...], holako zean bat.

19. San Pelaio eta Iñurritza, izen nahasketa

- **Erref:** ZAR-045/025
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:41:28. **Bukatu:** 00:42:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Gerra aurretik Iñurritza deitzen zitzaion auzoari, baina eliza egin zutenean San Pelaio izenarekin nahastu zen.

20. Morroiaren eginbeharrak eta baldintzak

- **Erref:** ZAR-045/026
- **Iraupena:** 0:02:17. **Hasi:** 00:42:35. **Bukatu:** 00:44:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Baserrian Urdanetako morroia izan zuten. Bera tailerrean zebilenean anaiak bakarrik ezin zituen baserriko lanak eraman. Baserriko edozein lan egiten zuen morroiak, etxekoen gisan. Morroiaren soldata.

21. Lan-baldintzak: lan-orduak, oporrak...

- **Erref:** ZAR-045/027
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 00:44:52. **Bukatu:** 00:47:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Industria motak » Armagintza

Laburpena:

Lan-baldintzak tailerrean. Hasieran astebeteko oporrak ematen hasi ziren. Gero piskanaka joan ziren opor luzeagoak ematen. Altzarien fabrika ibili izan da beti lanean. Zenbat ordu lan egiten zituen. "Sabado ingles"-a.

22. Bizikletan entrenatzeko astirik ere ez

- **Erref:** ZAR-045/028
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:47:34. **Bukatu:** 00:48:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Bizikletan ibiltzeko astirik ez zuen izaten; igande arratsaldean entrenatzen zen. Botikan saltzen zen masajeak emateko likido bat, olioia, ozpina eta arrautzarekin egina.</p>

Transkripzioa

- Eta nola uztartzen zendun hainbeste ordu lana in ta gero bizikletan ibiltzia ta hori?
- Ez nitzan ibiltzen bizikletan! Korritu behar zanen korritzea jun ta entrenamentua. Jai arratsaldian iten nun entrenamentua, jai arratsaldeko entrenamentua. Astian zenbat aldiz ibili oten nitzan ni... Karrera zan aurreko astian hortxe bi aldiz o ibiltzen banitzan o bi astetan bi [...] horrela o... Baiña gaiñuntzian lanian hala ibillita, eta grasa sobra haundiikan gabe, ta goortua, zaildua. Ez noski behar bezela bere belaunak eta gaiñuntzekuak eiñak, baiña petxuak eta jarrita bai.
- Ordun entrenamentuik eta masajiak eta holako kontuik?
- Masajiak? A bai, ze ibiltzen gendun hasteakon ta, "[Embrogación] Hércules", bai, "[Embrogación] Hércules, era una mezcla de huevo, aceite y vinagre debía de ser...". Baiña botikan saltzen zan, e!, "[Embrogación] Hércules", zea, esnia bezelako hori bat zan, ta "zertako?", [...]. Uain ez da ematen hori, e! Bestelako beroketak iten dia, baiño hori ez due gehio ematen.

23. Txirrindularien baldintzak; janzkera, ekipoak...

- **Erref:** ZAR-045/029
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:48:36. **Bukatu:** 00:50:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Txirrindulari taldeak baziren, baina bera bakarka ibiltzen zen. Taldeek ez zuten ordaintzen hasieretan. Lasterketa gogorrenak Arratera edo Arantzazura igoerak. Bakoitza ahal zuen moduan janzten zen. Propaganda eramanez gero, antolaketakoei ordaindu behar zitzairen.

Transkripzioa

- Eta bizikletan nola ibiltzen ziñan? Ekipotan? Ala bakarka? Edo...
- Ni bakarka ibiltzen nitzan, bakarka. Ordun ekipuak eo, puntan-puntan zeudenak ere ekipuak zeuzkaten, ta. Michelinen ekipuan korritzen zuenak'e uste det izaten zuela desplazamentutako kostia eta tubularrak kamixeta hua eramateatikan. "De leandra nada". Ta hemen Cruz Ganzarain zan andoaindarra pixkat [...] destakutzen zana, ta hua Frantziko ekipo batea jun zan ta hemen ezer ez zeola. Geo hasi zan paatzen ta ziklismua, artian ez zan paatzen.
- Ze karrera hola ezautzen dezu goorra izena edo?
- "A nivel nacional" osea da?
- Ez, ez...
- Ordun, "Subida a Arrate" bat izaten zan. "Subida a Aránzazu" re bai, oain ez da iten hori. Ta "Subida a Aránzazu" nik hemeretzi urte nitunian Frantzitikan lau korredore etorri zian ta zan hurrengo urtian Tourra irabazi zuna, Jean Robic, hori zan bat. Ta geo munduko txapeldun ziklikrosian'e izan zan: Robic, Romeu, Brûlé, [...], lau hoyek etorri zian handikan. Ta ordun Arantzazukua oso zea zan, ospetsua zan. Bestia Arratekua hori zan, [...]. Geo, lehen-lehen, gerra aurretikan "Vuelta al País Vasco" izan behar zun, baiño urte hayetan ez zan eon, geo hasi zan hori're, geo hasi zan.
- Ta hori, jantzi ta, nola jazten ziñaten?
- Bakoitzak ahal zun bezela. Nik fuboleko kamixeta eamaten nun ta galtzak beste laun batek laga zixkialako, nere mallota ta zea hua zan. Eta eamaten bazendun propagandako bat, "tenías que pagar a la organización por hacer propaganda".
- Kontxo!
- Zuk paatu!
- "Sí, sí, sí".
- Norbeak paatu behar, e.
- Norbeak paatu behar. "No, no", "¿Usted qué camiseta lleva?", "No, no, no lleva ningún esto", "Ah, vale, vale". "Usted, pues tal... ah! Cinco pesetas", jo!!
- Ta pintxazoik izan ezkeo, bakarka junda, ze?
- Ahal zunak ahal zuna in behar! Bai, bai. Hola ekipoko lagunak eta horrela ta, ta ez zan ez holako... Batzuekin o bestiakin konfiantza bai, ta "hi, pixkat zeatu dik", eta horrela, baiña bestela...
- Ordun tubularra ta herramientak eta gaiñian eaman behar!
- Eaman in behar! Lehen-lehenokuak izaten zian, ba, hola, bizkarren sartu doblatuta ta, hala ez, baiña atzian lotuta eamaten gendun.

24. Garaiko txirrindulari onenak

- **Erref:** ZAR-045/030
- **Iraupena:** 0:01:14. **Hasi:** 00:50:50. **Bukatu:** 00:52:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

Orduko txirrindulari onenak: Elgezabal, Loroño, Bidaurreta... Bidaurreta anaiak nafarrak ziren. Txirrindulari asko ez ziren horretara dedikatzen. Expositok, esaterako, tailerrean lan egin eta baserria ere eramaten zuen. Atzerritarrek.

Transkripzioa

- Ze korredore izan dezu garai hartako buruan edo? Zure, zera, maitatuena, edo?
- Bueno, ordun onentxona espriñan Cruz Ganzarain hori zan. Geo Oscar Elgezabal, Loroño bat. Ta Bidaurreta, naparrak zian hoyek, hiru anayak Bidaurretak. Hoyek prepaatu iten zian hoyek, prepaatu iten zian. Ta bestiak mitxelenatarrak. Bi anayak ta lehengusua. Bi anai hoyek [...] Españako txapeldun biyak izan zian ziklokrosian, ta nahiko, nahiko [...], bestiak baiño gehixio prepaatuak zian. Eta Bidaurreta hoyetakua zaharra [...] Felix, astegunian hemen tarteka-tarteka pasaran ikusten zan. Panplonan hasiko zan, baiño taka-taka-taka-taka honea buelta iten, ta. Garai hartan besteik ez zan ibiltzen. Exposito bat'e ibiltzen zan hortan. Acerosen lana in, Basarriyan seme bakarra zan, ta itxian morroi batekin ta andriakin ta ahal zuen bezela basarriya eaman, ta afiziyua, ta, tarteka ibili ta ez zan hola, hortako eksklusibo oain daben bezela, meikuakin ta hola ta hola... "brillaba por su ausencia".
- Bestela, estranjerikoik o hola? Ze korredore zeon ordun?
- Zea, Bartali ta Copi, hoyek zian hortan, Bartali ta Copi zian. Geo izan dia, ba, [...] ta beste zea hoyek, baiña garai hartan Bartali ta Copi.

25. Telebista ikustera dendako eskaparatera

- **Erref:** ZAR-045/031
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:52:04. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Aisia » Kirola » Txirrindularitza

Laburpena:

<p>Egunkaritik jarraitzen zituen txirrindularitzaren inguruko berriak. Lehenbiziko telebistak etorri zirenean, jendea dendetako eskapareteetara joaten zen aulkiak hartuta.</p>

Transkripzioa

- Nola, nola jarraitzen zenun jente horren ibilkera eta aktualidadea ta?
- Honbre, astian behin eo perioikua hartzen zanian hola ordu erdi batian beitu ta afizionau, ta begiyak jun iten dia harta, dakazun harta jutun dia, ta horrela, horrela.
- Eta radiyua ta?

- Radiyua geoxio, baiña bai, laixte. Hori nik... hogeita bat urte nituneako bazan radiyua, bai, bazan.

- Etxian haundi hoitakua, Telefonen edo hola?

- Ez, zer zan hua? Ez, Telefonen ez zan...

- Beno, berdin dio.

- Kauen la puñeta... Ez, Telefonen ez zan...

- (S) Bestela, nik entzutea, futbol partiduak eta elektrizidade denda saltzen zitunak telebistan, etxetik aulkiyak eaman eta kalia danak, eskaparte aurrian ta.

- A, zea, telebisiyua jarri zianian, zea, telebisiyua jarri zianian, Zarauzko Iribar seleziyuakin Rusuan kontra. Ta nik ordun lana iten nun mueble-etxeko alabak hoitakuan denda zaukan. Ta orduntxe aurrengo telebisiyuak. Geure nausiyak beak'e ez zeukan telebisiyoik etxian. Eta dendan propagandantzako in zuen fonduan jarri hoyetako bat, eta bere aita, ama ta bere sendiya ta langilliak zean, eskaparatian barruan, zea, esertokiyakin. Ta publikua etxetik alkiyak eta ekarri ta bi illara o in eta kaletikan beira. Hori ez da zea, Iribarrek Europeoko zea hori irabazi zueneko ordun.

26. Baserriko jendea erreka bainatzera

- **Erref:** ZAR-045/034
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:55:10. **Bukatu:** 00:56:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Bainuak, erreka eta uretako jolasak
- Aisia » Kirola » Uretako kirolak

Laburpena:

Berak 20 urte inguru zituela trainerilak izaten ziren. Igerian justuan ikasi zuen. Errekara joaten ziren bainatzera, hondartzara joateko arropak aldatu behar izaten zirelako.

27. Zarauztik Aiara korrika-apustua

- **Erref:** ZAR-045/035
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:56:28. **Bukatu:** 00:59:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak
- Aisia » Kirola » Beste kirol batzuk

Laburpena:

Apustuak. Gehien korrika-apustuak egiten ziren. Ezagunenetakoa Zarauztik Aiara Jose Osa eta Rotetak egindakoa. Lasterketa honen inguruko gorabeherak.

28. Idi-demen hasiera "Noizbait" frontoian

- **Erref:** ZAR-045/036
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:59:36. **Bukatu:** 01:00:48

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Kirola » Herri-kirolak

Laburpena:

Idi-demak noiz hasi ziren. Etxabek "Noizbait" frontoia alkilerrean hartu eta idi-demak antolatzen hasi zen. "Noizbait" izena nondik datorren.

29. Kondearentzako txakolinarekin gertatutako pasadizoa

- **Erref:** ZAR-045/038
- **Iraupena:** 0:01:49. **Hasi:** 01:02:07. **Bukatu:** 01:03:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa

Laburpena:

Txakolinak ez zuela urik onartzen esaten zen. Horren inguruko pasadizoa. Behin, kondearentzako txakolina egiten ari zirela, hankak garbitzeko erabiltzen zuten ura erori zitzaien txakolinetara.

30. Getariarrekin pikea balea dela eta

- **Erref:** ZAR-045/039
- **Iraupena:** 0:01:42. **Hasi:** 01:03:56. **Bukatu:** 01:05:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Inguruko herriak eta auzoak

Laburpena:

Harreman ona zuten inguruko herriekin, baina getariarrekin bazuten pikea. Balearen inguruko bertsoak. Nork ikusi zuen eztabaidan ari zirela, balea azkenean usteldu egin omen zen Getariako kaian.

31. Aristokrata gazteen entretenimendua

- **Erref:** ZAR-045/040
- **Iraupena:** 0:00:36. **Hasi:** 01:05:38. **Bukatu:** 01:06:14
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak

Laburpena:

Aristokraziako gazteak goizean hondartzara joan eta arratsaldean txokolatea hartzera joaten ziren mendira.

32. Sagardotegietako ohiturak

- **Erref:** ZAR-045/041
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:06:14. **Bukatu:** 01:08:08
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Sagardotegiak

Laburpena:

<p>Txakolindegia: Txoko taberna dagoena, Amenabar.. Sagardotegiak: Errausta, Otzarreta.. Kuadrillan joandakoan token aritzen ziren eta galtzen zuenak ordaintzen zuen.</p>

33. Lehengo euskara eta oraingoa; Zarauzkoa eta Getariakoa

- **Erref:** ZAR-045/042
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 01:08:08. **Bukatu:** 01:09:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera
- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

Kaletarrengandik euskara desberdina duela aipatzen dute. Gaur egun gazteekin nabaritzen duen ezberdintasuna. Getariarren euskara desberdina dela dio.

34. Soldadutzara joandakoen bizipenak

- **Erref:** ZAR-045/043
- **Iraupena:** 0:02:44. **Hasi:** 01:09:48. **Bukatu:** 01:12:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Soldadutza

Laburpena:

<p>Jendea normalean soldadutzara joan ostean ezkontzen zen. Soldadutzara ez zen joan, gaitz fisikoa zuela esanda. Jendea nora joaten zen soldadutza egitera. Kontatzen zituzten bizipenak. Marinara joaten zirenak garbiago ibiltzen omen ziren.</p>

35. Udan logelak alokatzen ziren

- **Erref:** ZAR-045/044
- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 01:12:32. **Bukatu:** 01:15:28
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Aisia » Oporrak

Laburpena:

Etxea erostea garesti zegoen, eta errentan egoten ziren asko. Etxea erosteko aurrezten ibili zen zarautzar bati gertatu zitzaiona. Etxepe bakoitzean bi-hiru familia ere egoten ziren. Udan, logelak alokatzen ziren, "con derecho a cocina".

36. Udararen logelak alkatatzen ziren

- **Erref:** ZAR-045/045
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 01:15:28. **Bukatu:** 01:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Oporrak

Laburpena:

<p>Gerraostean Frantziatik etortzen ziren asko udaran, hau merkeagoa zelako. Frantsesekin izaten zuten harremana. Nora joana izanez gero, udaran etxea alkatatu eta dirutxo ateratzen zuten.</p>

37. Hasierako kanpotarrak nondik etorri ziren

- **Erref:** ZAR-045/046
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 01:16:48. **Bukatu:** 01:18:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Udala

Laburpena:

Lehenbiziko jende-multzoa Galiziatik etorri zen (kanterara lanera) eta gero Extremaduratik.

38. Lehengo Zarautz eta oraingoa

- **Erref:** ZAR-045/047
- **Iraupena:** 0:02:42. **Hasi:** 01:18:00. **Bukatu:** 01:20:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Aldaketak eta arazoak

Laburpena:

Herria nola joan den hazten eta aldatzen. Lehengo eta oraingo konparaketa. Desagertutako garbitoki haundi baten inguruko kontuak.

39. Trenbidearen banaketa: Zarautz eta Azken Portu

- **Erref:** ZAR-045/051
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:26:10. **Bukatu:** 01:27:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Trenbidea beti dagoen lekuan ezagutu du. Trenbidetik haruzkoa beti apartetzat hartzen zen eta bertako jendeak "Zarautzera noa" esaten zuen. Auzokoen harremana.

40. Barazkiak, frutak; hauen zainketa

- **Erref:** ZAR-045/053
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 01:28:50. **Bukatu:** 01:31:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserria » Baserriko lanak » Baratzeta eta soroa
- Baserria » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Patata, aza, koniflora, azelgak.. denetik hartzen zuten baratzetan. Udare asko izaten zituzten, 200 zuhaitzetik gora. "Sulfato de cobre" erabiltzen zuten barazkiak "gorriak" ez jotzeko. 19 urterekin jan zuen lehenbiziko aldiz tomatea.

41. Produktu onenak kalean saltzeko

- **Erref:** ZAR-045/054
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 01:31:15. **Bukatu:** 01:32:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Produkturik onenak kalean saltzeko izaten ziren; eta kaskarragoak, etxerako. Bere anaiek belar-meta azpian oilo-arrautzak topatu zituzteneko pasadizoa.

42. Esne-litroaren prezioa bera umea zela eta aurrerago

- **Erref:** ZAR-045/056
- **Iraupena:** 0:01:06. **Hasi:** 01:32:34. **Bukatu:** 01:33:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Esne-partitzen ere ibili izan zen mutikotan. Marmita eskuan sartu behar izaten zuen, bestela lurra jotzen zion eta. Zenbat diru ordaintzen zen esne-litroa.

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com